

Auzia Nafarroako irratigintzan

# Irregularitasunak Nafarroako FMren lizentzia berrien banaketa prozesuan

'Onda Cero' irratia Gobernuaren baimenik gabe has litzake emisioak

Nafarroako Gobernu sozialistak FMko lizentzien banaketa iragarri zuenean, protestaldi zabala izan zen Nafarroan, euskal irratia kanpoan utzi zituela eta. Hori dela eta, soluziobidea bilatuko zutela adierazi zuen orduan Urralburu presidenteak, baina, postua josituta ere, ez da horrelakorik izan. Lizentzia jaso dutenen artean, ordea, irregularitasunak daude agerian.



Urtero bezala, astelehenean festa handia izango da Olarizun.

ALEX

rako eskaria jaso ere. Adierazi zenez, «dekretuaren azalpen guztiak bete beharrekoak dira, baina Gobernu honek ezin izango du hori aurrera eraman. Nik gogoratzen dudanez, dekretuak ez du espreski debekatzen, baina Gobernuari baimena eskatu beharra aipatzen du. Hau betetzen ez bada, Gobernu berriak bere ondorioak atera beharko ditu».

Dekretuaren hamargarren artikuluan argi eta garbi adierazten dira bete beharreko zenbait puntu, eta horien artean, «kontzesioa jaso duenak hustiatzea. Kontzesioa ezin izango da dagokion baimenik gabe eskuz aldatu edo laga».

**ONDA CERON EZ DAKITE** Bitartean, Juan Tomas Luengo 'Onda Cero' Iruñeko emisoraren arduradunak gaiaz «deus ez zekiela» adierazi zion egunkari honi. Luengok iraila amaitu baino lehen emititzen hasteko nahia azaldu zuen, pro-

gramazio nazionala bakarrik, baina hori, aipatu baimenik gabe, legez kanpoko izango litzateke.

Guzti honetatik kanpo zenbait galdera erantzunik gabe gelditzen dira afera honetan, eta —gutxienez— harridura sortzen dute. Nafar Gobernuak lizentziak banatzeko argitaratu zituen betebeharreko baldintzen artean, sendotasuna eta segurtasuna izan ziren ardatzetako batzuk.

Foru dekretuaren laugarren artikuluan azaltzen denez, kontzesioak «ezaugarri hoberenak eta segurtasun handienak eskainiko dituenak jasoko ditu». Harritzekoa da, beraz, aurretik horrelako operazioak eginak zituen enpresa bati ematea, 'Radio Blancak' beste lurraldeetan lortutako kontzesioak ere saldu dituelako.

Esan behar da baita ere, ONCE enpresak parte hartu zuela lehendabiziko lehiaketan, Uniprex izenarekin, eta ez zuen lizentziarik lortu.

# Xorroxin Irratia mankomunitatera, Euskalerrria Irratiak zain egon behar

A.B. / IRUÑEA

Gobernuaren erabakia ezagutu zenean Xorroxin Irratiaren etorkizuna benetan larria bazen ere, gaur egun bidea aurkitu dutela ematen du, eta luze gabe konponbidea gauzatu delakoan daude Baztan aldean. Bide hori udalen eskutik etorriko da, Zugarramurditik Enderlatzaraino irati mankomunitatea egiteko asmoa agertzen bait da gero eta garbiago. Asmoa Sunbillako Udalak plazaratu zuen lehenengoz, eta Baztango Udalean izan aldaketarekin proiektuak aurrera egin du. Udal irratia izateko lizentzia jadanik eskatuta dauka Baztango Udalak, eta, ondoren, hitzarmen bat sinatuko litzateke Bortzirriak, Malerreka, Bertizarrana, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko udalen artean.

Horrek eragina izango du irratia- ren funtzionamenduan, baina, burujabetasuna mantendu nahi dutela adierazi dute argi eta garbi Xorroxingo ordezkariek. Hau da, irratia

irradi barrutik zuzendu eta bideratuko da, eta horretarako hamar urteko baimena eskatuko zaio Udalari. Hala ere, irratia profesional maila aunitz igoko da, bertatik azaltzen dutenez, eta kalitatea ere gehiago landuko da, baliabide handiagoak izaterakoan. «Hizkuntza ere aberastuko da nabarmen, beti hemengo gure hizkerari begira, eta zerbitzua gizarte osoari izango zaio zuzendua».

**EUSKALERRIA IRRATIA ILUNAGO** Euskalerrria Irratian, bestalde, gauzak ez daude hain garbi, eta hasieran erabakiaren kontra aurkeztu zuten errekursoak ez du eran-

tzunik izan. Bertan lehiaketaren zenbait oinarri ez zirela bete azaltzen zuten, eta baita beste zenbaitzuek erabakiorrak izan zirela ere. Halaber, aurkeztutako beste espedientea argitaratu emateko eskatzen zen errekurtsioan, alderatu ahal izateko. Horrek, baina, ez du inolako erantzunik jaso Gobernuaren aldetik, eta hasierako hitz goxo guztiak ezerezean gelditu dira.

Bitartean, Euskalerrria Irratiak bertan dirau bere emankizunekin, eta Gobernu berriari afera konpontzeko dei berria egiteko prest. Honek onarpen legalaren bidez etorri beharko luke.

## DEUSTUKO IKASTOLA

Goi ziklorako irakasle bat behar da. GIZA ZIENTZIAK eta INGLESA emateko Ezkabideak ASTELEHEN BAINO LEHEN. IRUNA-2-B K.P 48 014 BILBO Tfnoa.: 94/447 36 45

# Ordezko zerbitzu soziala egiteari uko egin zioten hiru gaztek

G.A. / BILBO

Gabriel Ibarra, Iñaki Landa eta Asier Aranak ordezko zerbitzu soziala egiteari muzin egin zioten atzo Bilboko Gurutze Gorriaren egoitzan. «Gaur eguneko ordezko zerbitzu sozialaren aurka gauden arren, duintasun baldintza batzuk biltzen dituen beste mota bateko ordezko zerbitzu soziala egiteko prest geundeke, eta hala jakin erazi diogu Bilboko Gurutze Gorriko arduradunari», adierazi zuten hiru gazteek.

'Lege honi esanik ez!' lemapean, hogeitamarren bat pertsonaz osaturiko giza katea atera zen Bilboko udaletxetik. «Kontzien-

tzi-eragozpen lege berri baten alde!», «Lege honi esanik ez» bezalako lelopean giza katea Gurutze Gorriaren egoitzara abiatu zen.

Bertan kontzentrazioa egin zuten, barnean hiru gazteek ordezko zerbitzu soziala arbuizatzeko arrazoiak berri ematen zuten bitartean.

Euskadiko Kontzientzi Eragozleen Elkarteak parteideak diren hiru gazteen esanetan, «gaur egun indarrean dagoen kontzientzi eragozpen legea gizabanakoen erlijio eta ideologi askatasun eskubidearen aurka dago, objektzio eskubidea zerbitzu militarra ez egitera mugatzen duelako.



## HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIA

FORU ALDUNDI ETA UDALETAKO LANGILEENTZAT DEIALDIA

Foru Aldundi eta Udaletako langileek beren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke egutegia eta toki-orduak ondorengo hauek izango direla jakin erazten da:

- Hizkuntz Eskakizuna:**
  - BILBO**
    - Eguna(k): IRAILAK 23 eta 24.
    - Tokia: Hizkuntz Eskola Ofiziala. Madariaga etorbidea, 4. Bilbo.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
  - DONOSTIA**
    - Eguna(k): IRAILAK 23 eta 24.
    - Tokia: Informatika Fakultatea. Manuel de Lardizabal, 1. Ibaeta auzoa. Donostia.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
  - GASTEIZ**
    - Eguna(k): IRAILAK 23.
    - Tokia: HAEE / IVAPen egoitza. Adriano VI, 20. Gasteiz.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
- Hizkuntz Eskakizuna:**
  - BILBO**
    - Eguna(k): IRAILAK 30 eta URRIAK 1 eta 2.
    - Tokia: Hizkuntz Eskola Ofiziala. Madariaga etorbidea, 4. Bilbo.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
  - DONOSTIA**
    - Eguna(k): IRAILAK 30, URRIAK 1 eta 2.
    - Tokia: Informatika Fakultatea. Manuel de Lardizabal, 1. Ibaeta auzoa. Donostia.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
  - GASTEIZ**
    - Eguna(k): IRAILAK 25 eta 26.
    - Tokia: U.N.E.D.en egoitza. Pedro de Asua, 2. Gasteiz.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
- Hizkuntz Eskakizuna:**
  - BILBO**
    - Eguna(k): URRIAK 8 eta 9.
    - Tokia: Hizkuntz Eskola Ofiziala. Madariaga etorbidea, 4. Bilbo.
    - Ordua: goizeko 09.00ak.
  - DONOSTIA**
    - Eguna(k): URRIAK 8 eta 9.

HAEEk zuzenean jakin eraziko dizkio erakunde bakoitzari bere langileei dagozkien azterketa egun, toki eta ordu zehatzak. Argibide gehiagotarako, jo irailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira, 184 zkia.